

## SAMIELATIK UKRANIARA

Kaixo Mutriku

Dakizuen bezala, Samielak herrialde desberdinekin proiektu solidarioetan laguntzen du. Oraingo honetan, Ukrainian gertatzen denari ezin diogu bizkarrik eman eta gure ahalegin guztia egin nahi dugu herrialde honetara gure laguntza iristeko. Aurreko proiektuetan Mutrikuko herriak erantzun oso ona eman du, eta badakigu honetan ere zuen elkartasunak bat egingo duela.

Elkarte desberdinekin hitz egiten aritu gara eta gaur gaurkoz egoera hau da; biltegiak beteta dituzte eta Poloniako mugan oztopoak dituzte material guztia Ukrainara sartzeko. Materialez beteta doazen autobusak pertsonaz beteta itzultzen ari dira. Horregatik, material bilketarekin jarraitzea komenigarria dela esan digute, bertan dauden pertsonen eta etortzen ari diren pertsonen oinarrizko beharrak asetzen laguntzeko.

### **Bilketa egunak eskolan:**

- **Martxoaren 7tik 14ra**
  - **Astelehenetik ostiralera 19:00ak arte**
  - **Larunbata eta igandea, 11:00-13:00**

**HERRI OSOAREN LAGUNTZA BEHARREZKOA DA.**

**AUPA MUTRIKU, ELKARTASUNEAN DENOK BAT GARA!**

Hauek dira, momentuz astebeteko epean, jasotzea beharrezkoak diren materialak:

Oinarrizko beharretarako	Hotzik ez izateko	Elikagaiak	Material osagarria
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pardelak</li> <li>- Biberoiak</li> <li>- Toallitak</li> <li>- Konpresak</li> <li>- ...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Barruko arropa termikoa</li> <li>- Neguko arropa (berokiak, galtzerdiak, eskularruak, txanoak, botak)</li> <li>- Lotako sakuak</li> <li>- Mantak</li> <li>- ...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Iraungitzen ez den edozein janari (makarroiak, irina, arroza, espagetia)</li> <li>- Umeentzat esne hautsa.</li> <li>- Ura</li> <li>- ...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pilak</li> <li>- Linternak</li> <li>- Gasak</li> <li>- Maskarillak</li> <li>- Tiritak</li> <li>- ...</li> </ul>